



6. KIROL MUNDUAN OZTOPOAK GAINDITU BEHARRA

Mendizalearen Eskultura ez da Galdakaon mendizaleak diren edo beste edozein kirol egiten duten guztien adierazgarri. Emakumeei non egiten zaie omenaldia eremu publikoan? Berriro ere, emakumeak ikusezinak dira. 2025ean, Erabide Emakume Elkarteak partaidetzazko prozesua jarri zuen abian, **Maritxu Bilbao Lapatza** mendizale aitzindariaren biografia Wikipedian sartzeko.

Emakumeek gizonek baino gutxiago parte hartu dute jarduera fisikoan eta kirolean (gaur egun ere berbera gertatzen da). Ez da halabeharrezko egitate isolatua, partaidetza hori txikiagoa delako tradizioaren arabera gizonenak omen diren arlo publikoetan; esate baterako, lan-mundua, mundu politikoa, mundu kulturala... Kirola ere haietako bat da. Emakumeak oso berandu sartu dira kirol-arloan, eta zailtasunez beteta egon da, gainera. Estereotipo sozial eta kulturalen ondorioz sortutako oztopoak gainditu behar izan dituzte, eta zenbait ideiarekin aurka borrokatu behar izan dira; esate baterako, emakumeek ez dute gizonek besteko gaitasunik kirol-jardueretan, emakumeen gorputza gizonduegitegi egiten da kirola egiten dutenean, emakumeentzat ez da interesgarria kirola egitea, kirol batzuk egokiak dira emakumeentzat eta beste batzuk ez...

Emakumeek apurka-apurka aurre egin diete oztopo horiei, eta, neurri batean, kirol modernoak gizonek gizonentzat sortutako jarduera delako gertatu da hori. Izan ere, horrela, balio jakin batzuk igorri eta 'gizonenak' omen diren gaitasun fisikoak garatu dira, mugimen-gaitasunetan (indarra, potentzia edo erresistentzia, adibidez) oinarritutako trebetasuna, indar fisikoa eta oldarkortasuna bultzatzeko. Hori dela eta, historiari begira, emakumeek lotune txikiagoa izan dute kirolarekin, eta, lotunea eduki dutenean, gizonen lorpenetan baino askoz aitortza txikiagoa jaso dute.

1896ko lehenengo joko olinpikoetan, emakumeei parte hartzea debekatu zieten. Orduz geroztik gaur egunera arte, ordea, bilakaera nabaria izan da. Edonola ere, komunikabideen tratua, soldatetan dauden aldeak eta beste faktore batzuk kontuan hartuta, agerikoa da oraindik bide luzea dagoela aurretik.

BAZENEKIEN...

2022an EAEko kirol-ohiturei buruz egindako inkestaren arabera emakumeek



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK *EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA*

(%58,1) gizonek (%71) baino kirol gutxiago egiten dutela? Horrez gain, kirola egiten duten 3 gizonetatik 2k atari zabalean egiten dute kirola, eta kopuru hori erdira iristen da ozta-ozta emakumeen kasuan.

MI(cro) RELATO

Piernas largas

Nació para correr. “De eso no puedes vivir siendo mujer”, le decían. “Tus esfuerzos no servirán para nada, solo los hombres lo consiguen”. Hizo caso omiso de las advertencias. Reunió energía. Se levantaba al amanecer y, antes de estudiar, pateaba los caminos mejorando su marca. Consiguió prepararse y lo logró. Subir al podio fue su culminación.

M. E.

ESTEKA INTERESGARRIAK

https://es.wikipedia.org/wiki/Maritxu_Bilbao_Lapatza

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdintasuna_sarrera/es_def/adjuntos/2022_Informe-Habitos-Deportivos-CAPV.pdf

<https://www.euskadi.eus/igualdad-mujeres-y-hombres-en-el-deporte/web01-a2kirola/es/>